



Argitalpen hau *Fortalecimiento de defensoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación con enfoques de género y local-global. Intercambio de aprendizajes, formación y creación de recursos pedagógicos* (PRO-00342022K3-0021) proiektuaren esparruan egin da.

Finantzatzailea:



Egia, justizia eta erreparazio eskubideen aldeko tokiko agenda eta agenda globala indartzeko proposamenak

Editorea: Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua



www.hegoa.ehu.es
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 946 01 70 91

UPV/EHU
Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64

UPV/EHU
Koldo Mitxelena Biblioteka
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi
Diseinatzailea eta maketatzaileria: Marra, S.L.
ISBN: 978-84-19425-40-9
2024



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Proposamenak	6
1. Sexu-indarkeria gerra eta errepresio testuinguruetan	6
2. Desagertze behartua	7
3. Giza eskubideak babesteko mekanismoak	9
4. Memoria historikoa	11
5. Giza eskubideen defentsa diasporetatik	12

Egia, justizia eta erreparazio
eskubideen aldeko tokiko
agenda eta agenda globala
indartzeko proposamenak

Aurkezpena

Lan honetan jasotako ideiak Hegoa Institutuak 2023tik 2024ra bitartean sustatutako zenbait lan eremutan sortu ziren. Horietan, bada, gatazka armatuko eta errepresio sozio-politikoko testuinguruetan giza eskubideen urraketa larriak pairatu dituzten biktimen egia, justizia eta erreparazio eskubideak eta ez errepikatzeko bermeak landu ziren.

Hain zuzen ere, honako eremu hauek bultzatu ziren: bi Topaketa Kolaboratibo Erdialdeko Amerikako (El Salvador, Guatemala eta Honduras) giza eskubideen mugimenduko eta mugimendu feministako erakundeak artikulatzeko eta ikaspenak partekatzeko –lehenengoa gerra eta errepresio testuinguruetako sexu-indarkeriari buruzkoa (San Salvador, 2023), eta bigarrena desagertze behartuari buruzkoa (San Salvador, 2024)–, eta hirugarren Topaketa bat, giza eskubideak babesteko nazioarteko mekanismoen eraginari buruzkoa, European erbesteratutako Kolonbiako eta Mendebaldeko Saharako hainbat emakumerekin (Bilbo, 2024). Hegoak, halaber, Nazioarteko Mintegi bat eta Giza Eskubideen Defendatzaileei zuzendutako Prestakuntza Espezializatuko Ikastaro bat bultzatu zituen (Bilbo, 2024). Horietan parte hartu zuten batetik, lehen aipatutako topaketan parte hartutako hainbat emakumek eta, bestetik, gatazka armatuak dituzten Latinoamerikako hainbat herrialdetatik eta Mendebaldeko Saharatik etorritako beste emakume batzuek, baita Euskal Herrian erbesteratu, errefuxiatu eta migratu gisa dauden beste emakume batzuek ere¹.

1 Honako erakunde hauek parte hartu zuten: El Salvadorretik, Las Dignas, Cristosal, Centro para la Promoción de Derechos Humanos (CPDH), Comité de Madres de Desaparecidos y Asesinados Políticos (CODEFAM), Comité Promemoria, Probúsqueda, Servicio Social Pasionista (SSPAS), UCA, UES, Comité de ex presos y presas políticas durante el conflicto armado (ExCOPPEs), Sindicato de Trabajadores/as de Soyapango (SITRASOYA) eta MalaYerba eta Focus hedabide alternatiboak; Guatemalatik, Mujeres Transformando el Mundo (MTM), Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG), Centro para la Acción Legal en Derechos Humanos (CALDH), La Cuerda eta Fundación de Antropología Forense de Guatemala (FAFG); Hondurastik, Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos en Honduras (COFADEH); Kolonbiatik, Ruta Pacífica de las Mujeres; Mendebaldeko Saharatik, Unión Nacional de Mujeres Saharaui (UNMS); Nikaraguatik, Asociación Madres de Abril (AMA); Dominikar Errepublikatik, Confederación Nacional de Mujeres del Campo (CONAMUCA); eta erbesteko kolektiboak, hala nola, Hijas de las Nubes (Mendebaldeko Sahara), Mujeres del Mundo, Enarak Kooperatiba, eta Mujeres al Derecho, Urabá Global Suiza-Colomna eta Colectivo Bachue Elkartea (Kolonbia). Egindako topaketei buruzko informazio gehiago hemen: www.hegoa.ehu.eus

Hala, dokumentu hau hausnarketa kolektibo baten emaitza da, eta honako helburu hauek ditu: egiaren, justiziaren eta erreparazioaren nazioarteko agendaren gai nagusietan sakontzea; giza eskubideen erakundeen, erakunde feministen eta erbesteratutako pertsonen kolektiboen arteko artikulazioa indartzea; eta giza eskubideen defentsan ekintza-ildo estrategikoak sortzea, genero ikuspegiarekin eta tokiko-global ikuspegiarekin.

Hala ere, lan honek ez ditu prozesu horretan sortutako ideia guztiak jaso nahi; aitzitik, lehentasunezko gaiei buruz gehien aipatutako proposamen estrategikoak laburbiltzeko ahalegin bat da. Gai horien artean ditugu, besteak beste, sexu-indarkeria, desagertze behartua eta giza eskubideak babesteko mekanismoak, baita hausnarketa kolektiboan indarrez agertutako beste batzuk ere, hala nola memoria historikoaren aldeko lanaren garrantzia eta beren jatorrizko herrietan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta ihes egin ostean diasporan dauden horien ahaleginak bateratzeko beharra.



Proposamenak

1. Sexu-indarkeria gerra eta errepresio testuinguruetan

Sexu-indarkeria gatazka armatuak eta errepresioa dituzten herrialde eta lurralde guztietan gertatzen da, eta emakumeei neurri handiago batean eragiten die. Hori dela eta, funtsezko garrantzia du azterketa eta ekintza-estrategia feministetan. Sexu-indarkeria ez da gatazken “zehar” kalte bat; aitzitik, egoera gehienetan gerrako arma gisa erabiltzen dute. Krimen horren atzean asmo militar eta politiko bat dago, eta maiz, modu planifikatuan egiten dute armadek eta talde paramilitarrek. Suntsitzeko gaitasun handiko arma da, inpaktu ugari eragiten baititu maila indibidualean, eta kolektiboan ere. Hain zuzen, emakumeei kalte zuzena egiten die, baina haien talde eta komunitateetan ere desegituratze komunitario eta sozial handia eragiten du, eta, hortaz, kalte handia egiten dio gizarte-ehunari. Sexu-indarkeriaren biktimek justizia lortzeko aukera izan dezaten, Estatuak beren obligazioak betetzera behartu beharra dago. Helburu horrekin, emakumeen eta feministen erakundeek aurrerapausoak lortu dituzten krimen horren aintzatespen legalean eta zigor-justiziaren ezarpenean, auzitegien aurrean salatutako kasuetan.

Proposamenari dagokionez, honako hauek dira indar-ideia nagusiak:

- **Auzi estrategikoaren metodologia indartzea**, gatazka armatuan edo errepresio testuinguruan pairatutako sexu-indarkeriagatik justizia eta erreparazioa eskatzeko prozesu legeletan. Kontuan hartu beharra dago, lortutako esperientzian oinarrituta, metodologiak sei jarduketa-eremu hauek dituela: estrategia juridikoa, estrategia psikosoziala, komunikazio-estrategia, segurtasun-estrategia, eragiteko estrategia eta finantza-estrategia.
- **Auzi estrategikorako gaitasunak eta langileen diziplinartekotasuna indartzea** gerrako sexu-indarkeriaren biktimei laguntza

ematen dieten erakundeetan, biktimek salaketa egin nahi duten kasuetan.

- **Dagoeneko judizializatu diren kasu enblematikoak posizionatzea** –esate baterako, Guatemalako Sepur Zarco kasua–, **tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan**, beste emakume eta erakunde laguntzaile batzuentzat ikasbide izan daitezen, munduko edozein lekutan.
- **Epaien aplikazioaren jarraipena egitea** gerrako sexu-indarkeriako kasuetan, batez ere epaiak ezarritako erreparazio neurrietan aurrerapenak lortzeko helburuz.
- **Gerrako sexu-indarkeriaren biktimen arteko topaketak sustatzea**, haiek indartzeko eta erreparazio estandarrak kolektiboki eraikitzeko.
- Gatazka armatuetako eta errepresio testuinguruetaiko sexu-indarkeriaren **biktimak komunitatean eta gizartearen aintzat hartzeko ekintzak egitea**, haiei babesa emateko eta izan ohi duten estigma soziala ezabatzeko.
- Gerra eta errepresio testuinguruetaiko **sexu-indarkeriaren salaketa publikoa mantentzea**, epaitegietara jotzen ez den kasuetan ere, eta indarkeria horren eta emakumeek egunero pairatzen duten indarkeriaren arteko lotura azpimarratzea.
- **Justizia eredu alternatiboak esploratzea**, hain zuzen ere, ekintza komunitarioaren eta kolektiboaren bitartez emakume biktimen erre-
kuperazioa eta beren bizitzaren eraldaketa lortu nahi duten horiek.

2. Desagertze behartua

Desagertze behartua gizateriaren aurkako krimena da, eta ondorio larriak ditu desagertutako pertsonen familietan, gizarteetan eta komunitateetan. Horiek agertzen ez diren bitartean, nahiz bizirik edo hilik, krimen hura etengabea da eta hainbat eskubide indibidual zein

kolektibo urratzen ditu, hala nola, askatasun eskubidea, segurtasun pertsonalerako eskubidea, bizitzeko eskubidea (desagertutako pertsona hiltzen duten kasuetan), errekurtsio eraginkorrerako eskubidea (erreparazioa eta kalte-ordaina barne), familia babesteko eta laguntzeko eskubidea, osasun eskubidea, hezkuntza eskubidea, eta abar. Krimen horretan, Estatuak izan ohi dira erantzuleak, beren segurtasun aparatuen bitartez, baina beren erantzukizunak ukatzen dituzte eta ez dituzte beren obligazioak betetzen –hala nola egileak, konplizeak eta estaltzaileak ikertzea eta zigortzea–. Horrek, bada, familien oinazea larriagotzen du; izan ere, familiak ere delitu horren biktimatzat hartzen ditu Pertsona Guztiak Desagertze Behartuen aurrean Babesteko Nazioarteko Konbentzioak (2006).

Proposamenari dagokionez, honako hauek dira indar-ideia nagusiak:

- **Desagertze behartuaren inguruko lana modu integral eta koordinatu batean egitea**, gutxienez honako ikuspegi hauetatik: juridikoa, psikosoziala, antropologiko-forentsea, generokoa eta biktimen esperientzian oinarritutakoa. Izan ere, ikuspegi horiek beharrezkoak dira fenomenoak ulertzeko eta zigorgabetasunaren aurkako borrokan emaitzak lortzeko.
- **Estatua arduradun nagusi gisa seinalatzea**, hain zuzen ere, desagertze behartuko biktimen egia, justizia eta erreparazio eskubideak bilatzeari eta bermatzeari dagokionez, Nazioarteko Zuzenbideak ezarritako printzipioak eta jarraibideak betez.
- **Artxibo militarretarako eta polizialetarako sarbide eskaerari zentraltasuna ematea**. Izan ere, desagertze behartuko kasuetan eta biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeek salatutako beste krimen batzuetan ere, Estatuak sarbide hori nahita blokeatzeko edo artxibo horiek badaudela ere ukatzeko estrategiak erabiltzen dituzte, zigorgabetasun mekanismo eraginkor gisa.
- **Desagertze behartuari buruzko dokumentazio eta kontzientziazio lanak egitea**, krimen horrek senideen bizitzan duen eragin jarraitua adierazteko.
- Desagertze behartuaren aurkako lanean, **giza eskubideen aldeko erakundeek eta erakunde feministen arteko artikulazioa** hobetu.

tzea, eta subjektu gehiago tartean sartzea, hala nola hezkuntza-erakundeak, nekazaritza, ingurumen eta antzeko beste arlo batzuetako erakundeak, eta abar.

- **Erakundeek desagertze behartuaren generoko dimentsioak aztertze eta identifikatzeko dituzten gaitasunak indartzea**, bai desagertutako emakumeen errealitateari dagokionez, bai genero-desparekotasunei dagokienez ere; izan ere, desagertzeak familietan dituen inpaktuetan eragiten dute desparekotasun horiek.

3. Giza eskubideak babesteko mekanismoak

Lehen esan bezala, Estatuak dute giza eskubideen urraketak prebenitzeko, ikertzeko, zigortzeko eta erreparatzeko ardura nagusia; baina, maiz, gatazka edo errepresio testuinguruetan, haiek izaten dira giza eskubideen urraketen erantzuleak, nahiz eginez edo ez eginez. Halaber, biktimen egia, justizia eta erreparazio eskubideak eta ez errepikatzeko bermeak oztopatzen dituzte zenbait kasutan. Herrialde batzuetan, gobernuen gelditasuna ikusita, biktimek berek eta giza eskubideen aldeko erakundeek trantsizioko justiziako ekimenak bultzatu dituzte (ekimen horiek, biktimen, erakunde laguntzaileen eta arloan espezializatutako erakundeen parte-hartze handia izan dute) eta onartuak izateko borrokatzen jarraitzen dute. Babes-mekanismoak ez egoteak eta Estatuak erantzun egokirik ez emateak, bada, eragin handia dute arrisku egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileengan. Estatuak beren eginkizunak betetzen ez dituztenean, nazioarteko edo eskualde mailako babes-sistemak aukera bat izan daitezke, eta biktimek horietara jo dezakete. Nazioartekoen artean, Nazio Batuen Erakundeak funtsezko eginkizuna izan du babes sistema unibertsalaren konfigurazioan. Aldi berean, eskualde mailan, Latinoamerikako, Afrikako eta Europako sistemak ditugu. Horiek ezagutzea eta erabiltzea ez da beti erraza, eta horietara jotzeko joera oso desberdina da erakundeen artean.

Proposamenari dagokionez, honako hauek dira indar-ideia nagusiak:

- Giza eskubideak babesteko nazio, eskualde eta nazioarteko mailako **lege-esparruen ezagutza eta zabalkunde publikoa sustatzea**.
- Eskualde mailako (Latinoamerikako edo Afrikako sistemak) eta nazioarteko (Nazio Batuak) **giza eskubideen arloko mekanismoen erabileran esperientzia duten edo hasi nahi duten erakundeen artean, laguntza-sareak sortzea**.
- **Eskualdeko edo nazioarteko giza eskubideen arloko mekanismoen bitartez lortutakoa ezagutzera ematea**, baliabide horien inguruko motibazioa mantentzeko eta horien garrantzia gogoan izateko, zailtasunak gorabehera.
- **Trantsizioko Justiziako Lege nazionalak egitea eta horiek onartzeko eskatzea**. Lege integralak izan behar dira eta biktimen eskubide guztiak errespetatu behar dituzte. Legeen integraltasunaren ideak esan nahi du genero ikuspegia izan behar dutela, neutroak omen diren legeek desparekotasun-logikak eragiten baitituzte.
- **Herrialdeen artean trantsizioko justiziako lege-proiektuen inguruan izandako esperientziak partekatzea**, horien onarpena lortzeko eragin-ekintzek nazio, eskualde eta nazioarteko irismena izan dezaten.
- **Arrisku egoeran dauden pertsona defendatzaileak babesteko ikuspegi integraletan sakontzea**. Horiek, alde batetik, azterketa diferentzialetan (feministak, antirrazistak eta beste batzuk) oinarritu behar dira, eta, bestetik, defendatzaileen kontrako askotariko erasoak (indibidualak eta kolektiboak, fisikoak eta digitalak) aintzat hartu behar dituzte.
- **Arrisku egoeran dauden defendatzaileen artean historikoki egon diren elkertasun sare komunitarioak indartzea**, babes-mekanismo instituzionalak hobetzeko etengabeko lanarekin batera.

4. Memoria historikoa

Memoria historikoa, pixkanaka, trantsizioko justiziaren eta zigorgabetasunaren aurkako borrokaren bosgarren oinarri bilakatu da, egiarekin, justiziarekin, erreparazioarekin eta ez errepikatzeko bermeekin batera. Giza eskubideen erakundeek eta erakunde feministek balio handia ematen diote memoria eraikitze lanari, are gehiago ahanztura, diskurtso errebisionistak eta politika negazionistak inposatu nahi dituzten larderiazko testuinguruetan. Gainera, ikuspegi feminista batetik, memoria leheneratzeko ahaleginak ez dira osoak ez badituzte emakumeen biktimizazio eta parte-hartzeko moduak aintzat hartzen, horiek historiatik baztertu izan baitira.

Proposamenari dagokionez, honako hauek dira indar-ideia nagusiak:

- **Memoriako estrategia espezifiko gisa, eta, aldi berean, zeharkako estrategia gisa lantzea**, trantsizioko justiziaren gainontzeko lau osagarrien alde egindako ekintzei dagokienez.
- **Memoria eraikitze tresna material eta immaterialak sustatzea eta bereganatzea**, hala nola oroitzapenezko datak, eremu publikoak, idatzizko edo ikus-entzunezko lanak, arte adierazpenak, eta abar, biktimak duintzeko eta giza eskubideen arloan memoriak duen balioari buruzko pedagogia egiteko.
- Gatazka armatuekin lotutako **memoria leheneratzeko lanean emakumeek izan duten protagonismoa gizartean aintzat hartzeko lan egitea**.
- **Erakundeen eta kolektiboen artxiboak gordetzea**, artxibo horiek erakundeek salatzen dituzten giza eskubideen urraketen eta zigorgabetasunaren aurka egin duten lan historikoaren ebidentzia baitira.
- **Belaunaldien artean elkarrizketa irekia eta etengabea mantentzea**, belaunaldi gazteek memoriaren eraikuntzarekin duten konpromisoa sustatuz eta aintzat hartuz.

- **Estatuei gogoraraztea memoria gordetzeko eta transmititzeko ardura haiena dela, politika publikoen bitartez**, giza eskubideak babesteko eta bermatzeko arduraren parte gisa, batez ere biktimei erreparazioa eta duintasuna ematearekin eta ez errepikatzeko bermeekin lotuta.
- **Narratiba berriak sortzea**, honako hauei aurre egiteko: batetik, eskubideen aurkako diskurtsoak eta politikak (gero era gobernu gehiagok sustatzen dituztenak, esate baterako, Erdialdeko Amerikan), eta, bestetik, Estatu batzuek beren krimenak ezkutatzeko eta nazioartean giza eskubideen aldeko irudi bat proiektatzeko erabiltzen dituzten diskurtsoak (adibidez, Marokoren kasua).

5. Giza eskubideen defentsa diasporetatik

Gatazkan dauden herrialdeetako lagunek diasporan egiten dituzten kolektiboetako asko oso politizatuta daude, eta horietan parte hartzen duten emakume asko giza eskubideen eta feminismoaren aldeko aktibista izan dira beren jatorrizko herrialdeetan. Erbesteratuak, errefuxiatuak edo migratuak diren emakume horiek oso ekarpen handia egiten diote gatazkak aztertzeko eta eraldatzeko lanari, eta giza eskubideen defentsari ere. Hala ere, ekarpen hori ez da beti ezaguna, ez beren herrialdeetako erakundeetan, ez harrerako gizartean. Pertsona horiek harreman afektibo, politiko eta sozial sendoak izan ohi dituzte jatorrizko herrialdeekin, eta horietako eta harrera herrialdeetako gizartean eta politikan eragiteko antolatzen dira. Hala gertatzen da Euskadin ere; izan ere, Mendebaldeko Saharatik, Kolonbiatik, Erdialdeko Amerikatik eta beste leku batzuetatik etorritako emakume askok gogoz parte hartzen dute euskal gizarte eta politika ehunean, mugimendu feministako eta giza eskubideen aldeko kolektiboetan.

Proposamenari dagokionez, honako hauek dira indar-ideia nagusiak:

- **Giza eskubideen aldeko lanean artikulazio handiagoa sustatzea** emakume erbesteratu, errefuxiatu edo migratuen eta beren jatorrizko herrialdeetako erakunde eta kolektiboen artean.

- Latinoamerikako, Afrikako eta beste eskualde batzuetako emakumeak **ihes egitera bultzatu dituzten arrazoiak ezagutzera ematea** (hala nola gatazka armatuko edo errepresio politikoko testuinguruak, baliabide naturalen espoliazioa, okupazioa, eta indarkeriazko edo desparekotasunezko beste testuinguru batzuk) **eta baita erbesteak beren bizitzan dituen ondorioak ere.**
- **Emakume erbesteratuen ekintza politikoa aintzat hartzea giza eskubideen defentsan.** Ekintza horretan, maiz, erbestearen ondorioak (dolua eta deserrotzea) ez ezik, erregularizazio prozesuetako oztopoak eta lan eta ekonomia egoera prekarioak pairatzen dituzte.
- **Erbesteratutako pertsonen kolektiboak elkarturik mantentzen saiatzea,** eta dispersioa, kontzientzia kritikoa galtzea eta despolitizazioa ekiditea.
- **Erbestea giza eskubideen urraketa larri gisa aintzat hartzea sustatzea,** erbesteratutako lagunen jatorrizko herrialdeetako eta harrera herrialdeetako erakundeen artean indarrak batuz.
- **Arrazoi politikoen ondorioz lekuz aldatu behar duten pertsonak babesteko estrategia integrala sortzea.** Estrategia hura, beste herrialdeko harreran ez ezik, migrazioaren prestaketan, migratzeko prozesuan eta geroko laguntzan zentratu behar da, harrera herrialdeetan dauden kolektiboekin harremanetan. Bestela esanda, nazioarteko elkartasun sare bat sortzea eta mantentzea, migratzera behartuta dauden lagunak babesteko eta zaintzeko.

Egia, justizia eta erreparazio
eskubideen aldeko tokiko
agenda eta agenda globala
indartzeko proposamenak